

ELI MANTEROLA | HITZETZ BASERRIKO EMAKUMEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

# “Hitza jarri diogu baserriko emakumeen errealitateari”

Orain dela hiru urte sortu zen Hitzetz elkarte, landa guneko emakumeei ahotsa eta babesa eskaintzeko asmoz. Batzordeko kide Eliri galdetu diogu zertan eman duten denbora.

## Orokorrean, zer lortu duzue hiru urtean?

Hitzetan jartzea landa guneko emakumeen errealitateari, biktimismorik eta liskarririk gabe, denok mugituz, eta ez etxean geldituz; ahotsa eman andreei.

## Eta zertarako erabili duzue ahotsa?

Batetik, emakumeak etxetik irten eta formazioa jasotzeko, hitzaldiak, tailerrak, babesa emateko taldea antolatzea... denak gure egoeran zentratuta. Eta, bestetik, bizi duguna erakundeetan ikusarazteko, eta gure onerako zer-bait ekarriko duen guztian parte hartzeko.

## Erakunde askotan aritzen zarete?

Bai, lortu dugun gauzarik garrantzitsuenetako bat da hainbat erakundek gurekin kontaktzea, foroetan, sareetan, komizioetan eta abarretan parte hartzeko. Inportantea da ez bakarrik gu kontuan hartzea, ezinbestekoa da guk erakundeetan ordezkari bat izatea. Nekazaritza sailean gaude landa emakumeen komizioan, Emakunden, Foru Aldundiko Berdintasuneko Foroan, REDAGI Gipuzkoako Emakumeen Elkarte Sarean, Debemen landa garapen elkarteetan... laguntza elkarri eskaini eta ematen diogu. Askotan aitortzen digute ez dutela egiterik guk egiten duguna, baina gu iristen garen lekuetara dirua, estruktura, legeak edo dena delakoa jar



Batzordekideak, ezkerretik eskubira: Arantxa Eizaguirre, Arantza Eizmendi, Eli Manterola, Rosa M<sup>a</sup> Aramendi eta Ana Mari Eizaguirre.

KARKARA

## Gu kontuan hartuz gain, ezinbestekoa da erakundeetan ordezkari bat izatea

ditzaketela. Eta maiz esan dugunaren oihartzuna entzun egin dugu: *Emakumerik gabe, ez dago etorkizunik landa eremuan*, eta hala da.

## Planteatzen duzuenaz ez al da hiriko emakumeek ere lortu nahi dutena?

Ez. Alde batetik, konpromiso pertsonala hartu dugu horrela bizitzeko, baina

## Geure buruari inplikazioa eskatzen diogu, eta besteei seriotasuna

hemendik hamar urtera ez da geldituko lurretik soilik biziko den baserriak, eta garrantzitsua bada ingurua zaintzea, lurretik produzitzea... erakundeek ere beren parte jarri beharko lukete, beharrezko zerbitzuak bermatzeko.

Bestalde, gurean ez dago mugarik alde produktiboa eta familia baten kidea izatearen artean: batean egiten duzun

guztiak eragina du bestean. Arazo handiak izaten ditugu jabetza, kotizazioa, emakumeen eskubideak direla eta. Eta legalki konponduta badaude ere, mentalitatea ez da aldatu. Emakumeek zein gizonetakoek ikusi behar dute zorrak konpartitzen diren bezala, horietan ere berdintasuna lortu behar dela.

## Nolako eragina izan du Hitzetzek?

Foro batean ponentzia egin edo erakundeetan parte hartu ondoren —50 emakumeen aurrean edo Batzar Nagusian, berdin-berdin du— jasotzen ditugun erantzunetan nabarmena da ezagutza eman diegula, eta askotan hunkitu ere bai. Azken urtetako helbururik handienetakoa bat izan da. Orain lantzen ari garen bat da landa emakumeen estatutua lortzea, etxerako eta Europarako, ez baita existitzen. *Oso onalitzateke hori lortzea* esaten digute. Litzateke ez, izango da, lortuko baitugu, demontre! Geure buruari inplikazioa eskatzen diogu, eta besteei seriotasuna. Modelorik, erreferentziarik ez dago? Ba, gauza zailagoak egin dira!

## Hori da, orduan, aurtengo helburua?

Hori, eta Batzar Nagusian gure eskaera islatuta agertuko balitz, ikaragarria litzateke. Formazioa ere landu nahi dugu, baina ez lorezaintza edo hari lana hobeto egiteko. Aurten generoen arteko desberdintasunei heldu diegu, eta horretan formatzera ausartzen direnak izan nahi ditugu. Eta lortuko bagenu emakumeek arratsalde bat hartzea bere onerako, kulparik sentitu gabe... Oraindik egiteko lan asko gelditzen da!